Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Domintxaine-Berroeta



Aurkibidea

Udalerria: Domintxaine-Berroeta

Sarrera



Domintxaine eta Berroeta herrien artean osatutako Zuberoako Udalerria, Pettarra eskualdean. Zuberoakoa izan arren, Donapaleuko kantonamenduan sartuta dago, eta hiriburu horrekin harreman handiagoa du Maulerekin baino. Euskalkia ere hurbilago dago behenafarreratik zuberotarretik baino.

- **Biztanleak**: 512
- **Euskaldunak**: %60,17

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **27**
- Transkribatutakoak: **12**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **27**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Euskal kultur erakundearen artxiboak

Hizlariak



Erramun Ardoi (1949)

Nafarroa Behereko Izturitzen sortu zen eta bi urterekin Zuberoako Domintxainera etorri zen bizitzera familiarekin.

Dominique Etxegarai (1930)



Dominique Etchegaray 1930eko apirilaren lehenean sortu zen Domintxaine Harixtoian. Herriko eskolan ibili eta, mutil sartu zen auzapezaren etxaldean, eta honen ilobarekin ezkondu. Bikoteak osabaren lurrak erosi zituen: Dominique eta bere emaztea izan ziren hazitako artoa egin zuten lehen laborariak.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Iritziak

1.1. Bizitza fite pasatzen da

- **Hizlaria(k)**: Ardoi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: DOB-001/001
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena**: Izturitzen jaio zen eta bi urterekin Domintxainera etorri gurasoekin. Ama Domintxainekoa eta aita Izturitzekoa. Senide batek esaten duenez, hirurogei urte arte fite pasatzen da bizitza, baina handik aurrera fiteago.

Transkripzioa
- Guk, "gorotza" bai, ulertzen dugu. Bestea... ez.
- Ez? "Voilà".
- Eta zu nola deitzen zara? Nola deitzen...?
- Ni? Ene izena?
- Bai.
- "Ardoi".
- "Ardoi", eta izen ttipia?
- "Erramun".
- "Erramun Ardoi" ?
- Bai.
- Eta sortua... Domintxainen?
- Domintxinen ez, "Isturits".
- A, Izturitzen sortu zinen?
- Bai.
- Eta gero, hona etorri?
- Aita-amekin hunat etorri, ttipi-ttipia nindian e!
- Zenbat urte?
- Bi urte nitielaik.
- Bi urteekin? O!
- Bai.
- Eta aita zen hemengoa?
- Ama!
- Ama... ama ere, hemengoa?
- Hemengua.
- Eta aita...?
- Eta aita hango, Isturitzeko. Bai.
- Eta gero etxe honetara etorri zineten?
- Ez, ez. Ez, ez... oono beste etxe batetaa ba.
- Bai?
- Bai.
- Eta hona noiz etorri zinen?
- "En cinquante-et-un" jinak gintian Domintxineat, enfin aita-amak jinak zitian Domintxineat "en mille neuf cent cinquante-et-un", eta hunat etorriak gituk "en mille neuf cent soixante-dix".
- "Soixante-dix"?

- Bai. Eztik aspaldi e!
- Bai.
- "Enfin, oui, bon", hogoita hamar urte bai halee... Ba, ba, ba... "tout à fait, tout à fait".
- Erraten dute gero hogei urtetarik ari zinela; fite pasatzen dela ...!
- Ba, ba. Ba, ba...!
- Ez dakit.
- Ba, ba... badiat eta Ameiketan aitaen aneia, bizi dena... eta batik /baditik/ "quatre-vingt six ou sept", eta erten zatak: "kasu, hirutan hogoi urte artio, fite pasaten duk, bana hirutan hogoi urtetaik haat, oono fitio badoa!" Ta haek, lautan hogoi [...] beti e! "Ah bon, ah bon".
- Orduan kontuz!
- E?
- Orduan kontuz!
- Ba, ba [...] ikusikoik!
- Bai.
- Badakika zer den, untsa izan, "enfin", ahal bada, osaarria "à peu près" untsa baduk, deia... Adina gio... gio pasaten duk biziki fitio.
- Bai.

2. Familia eta harremanak

2.1. Osaba-izebak Ameriketara

- **Hizlaria(k)**: Ardoi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: DOB-001/003
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:02:15. **Bukatu**: 00:06:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Aitaren hiru anai-arreba Ameriketara joan ziren. Euskaldun batekin ezkondu zen neska. Bi anaiak San Francisco aldean kokatu eta elkarrekin egin zuten lan. Euskaldun giroan bizi ziren, gazteak ez zuen ingelesik ikasten, eta egun batez bidali egin zuen anai zaharrenak. Bilatu zuen beste lan bat, okin, eta ingelesa ikasi. Onuragarri gertatu zitzaion anaiaren erabakia.

Transkripzioa
- Osaba... osaba!
- Joan zen e...?
- Bai, bai...
- Ameriketara?
- Ameiketaa. Ez hua bakarrik e!
- Ez e?
- Bost haurride bazitian ene aitain familia.
- Bai?
- Bost haurridetaik, biga Frantzian gelditu ta hiru Ameiketaa juan.
- O?
- Bai.
- Lehen, izugarri joaten zen hemendik...
- Bai.
- Ameriketara.
- Bai. Diruain, sosa jinaazteko.

- Bai.
- Heen jendiak, bazian, biziki jende bazian ta e... ordian bazuten haatik, haatik hek, eta oseba, "un oncle"...
- Bai?
- Oseba xahar bat, han zena. Ordian lehena juan zian hari buruz, ta gio hak, beste haurridiak eta... beste haurridendako okupatu ta istorio bai.
- Eta ze ingurutara, Ameriketara, ze aldetara joan ziren?
- E... juitia San Frantziskoko itzuli hortaa juan zian.
- A bai?
- Juitia. Gio hortik haato-hunato, eta zeit, esplikatuko diau gauza bat. Hor [...]. Lehenik aneia zaharrena, ene aitain aneia zaharrena juana zian.
- Bai?
- Bai. Hua ere, oai hila duk. Ta gio beste aneia, hari buruz juan zian. Ta arreba ere. Arreba, frango fite plantatu ziana, eta beste eskualdun batzu ezagutuik, "Saint-Martin-d'Arrossa"ko beste eskualdun batzu, ta haekin ezkondu ere bazian, "Saint-Martin-d'Arrossa"ko mutiko batekin, ta "donc" ene tanta "si tu veux", hain, ene aitain arreba, haik, eta fite ein zian, eta zera... anglesak eta han ikasi eta oro, ta gio berriz, beste aneia, gaztena oai juan zelaik, beantago e hua, hamar bat urten burian edo hola, ta anaiaekin hasi lan egiten han...
- Bai?
- "Entretiens, espaces verts", eta bon, hori eskualdunek jeneralian artzaingua landa oai eiten zuten. Ta ba, loratia zen... anaiaekin. Eskuaraz, beti eskuaraz, edo zerian... ta aneiak egun batez erran zakon: "Nik ez hut gehio atxikitzen. Nik eta utzi behar hut." "Zer duk eta ez lanik aski egiten?" "Ta ez. Lana aski iten duk. Bena eztuk heengo biziari batee plantatuko hi ene zereko... [...] holo-hola, ta eztuk hire bizia batee einen". Ta eon zin gio bizpalau urte hitzik erran gabe bi aneiak e! Hala kondatzen dute. A ba, ba, ba. Lana atxeman zakon... lana atxeman zakon! "A" [...], bolanjerguan. Ta bon, ta haat juan, bortxaz, ta anglesik batee ez emaiten... ta han ikasi ezpitzian beste...
- Beste erremediorik?
- Ezpitzian beste erremedioik. Emaztia ere han ezautu.
- Bai?
- "Les Aldudes".
- Aldude?
- Esnazuko.
- A bai? O ba! Esnazu...
- Eta "voilà", [...] bizi oai.
- A bai e?
- Eta berak erten dik behar e aneia, ordian erran zakola partitzia, gaiñeat behin e ez zela ikasiko ez anglesik, ez eta... "parce-que" ezpitzen beharrik ukanen"...
- Bai.
- "Y'a ça aussi !" Lehen, zerian... arrunt gaizki hartu zin, eta berex izan zian hola, ta bestaldetik, "c'était", xerbitxu bat zen haindako.
- Bai.
- Eta e... berak, bere...bere zera... har zezan eskietan... bere...
- Bai.
- Bere geroko manera "quoi".
- Bai, o!

2.2. Ameriketako lehengusuarekin euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Ardoi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: DOB-001/004
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:06:04. **Bukatu**: 00:07:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Ezkondu zen osaba. Haren semea, Mixel, oso euskaltzalea da, euskaraz aritzen da berarekin. Etxean euskaraz entzunez gero ikasten da.

Transkripzioa
- "Voilà". Ta gio... gio bolanjerguan, "donc" ez dakit zunbat urte erten dien, ez anitzik, bana zazpi, zortzi urte, ta hamar bat urte bolanjerguan, ta gio emaztia ezautu ta ezkondu, ta gio jin zen, eta gio ez [...] hua ere. Gio...
- Eta han hil dira?
- E?
- Han hil dira?
- Han hil dira e. A ba, ba, ba, ba. Ta haur bat´e badute, terrible eskualduna da gaiñeat oai.
- A bai e?
- Eskual Herriari atxikia. Terrible!
- Bai e?
- Eta bon, haur bat bazuten, ta haurra ere, haurrak eztaki anglesa ta eskuara bezik... Pentsa! A ba, ba, ba... Mikel, gue kusia [...] eskuara, eta oai telefonan ari dielaik gaztiaekin, ottoekilan e beti eskuaraz, bana gazte hua beti eskuaraz e.
- A bai e?
- "Enfin", hobe du, nik ez dakit anglesik e!
- Bai, bai.
- Alabak badaki...
- Pozgarria da.
- E?
- Hori pozgarria dela, poza....
- A ba, ba, ba. Eta "donc", hola da... e... bai. Hek eskuaraz, [...] senar-emaztiak eskualdunak. Inportantzia badu, oai oxtian, ene emaztiak erten nauzien, horrek aita eskualduna zian, eta ama Bidaxuneko, hak ez zakin eskuaraz hitzik. "Donc" etxen ez dute eskuaraik ikasi. Eskuarain zerik inportantena hua da, etxen entzutia.
- Bai.
- Haur batek ttipian entzuten balin badu, beti atxikiko du, bere bizi guzian atxikiko du goguan.
- Bai.
- Ez badu emaiten, ezpite... ez dielakoan eman nahi, bestenez etxen entzuna badu, adin batian ikasten dira denak!
- Bai.
- E?
- Bai, [...]
- Ba, bistan dena!

2.3. Aita zoriontsu etxea erosi zuenean

- **Hizlaria(k)**: Ardoi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: DOB-001/014
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 00:23:28. **Bukatu**: 00:24:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Aita inoren menpe bizitzen aspertua zegoen, eta haren egunik zoriontsuena etxea erosi zuenekoa izan zen.

Transkripzioa
- Usatiak zien besten peko "quoi".
- Bai, bai... hori da.
- Lehen aldia etxe hau erosi dik, eta gue aita kontent zela hau erosi zielaik. Hak erosia bitzien...
- Zure aitak?
- Ene aitak. Ene aitak erosi zien hau. Badakizu norat seküla ikusi hau irus, hua kontent zian hau erosi zien egunian. Bai... Bere denboa oro eina zian behar ziela nausien aztaparretaik [...] berak bere zera montatu.
- Bai, bai, bai.
- Bai...
- Eta lur sail handiak ditu? Lur asko...?
- Ba. Gio... gio eta muntatiak ditu...

3. Euskara

3.1. Familian ikasten den euskara betiko da

- **Hizlaria(k)**: Ardoi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: DOB-001/005
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:07:45. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Alabak ez zuen oso ongi ikasi euskaraz, baina ulertzen du. Semeak Urdinarbetarra du emaztea, euskaraz egiten du berarekin zein haurrarekin. Ez du ezer gau-eskolen kontra, baina familian ikastea da inportanta.

Transkripzioa
- Eta zuk, zure semeari eta alabari, eta erakutsi diezu?
- Ba, guti batekin... guti batekin. Heen, Domintxineko eskolan ta bada "les itinérants
basques" deitzen bituzte eta heen Jean-Michel Pocheluk eina du, denboa handiz, eta istorioa. Haekin, beraekin ere bazuten eta... nola erranen dut eta... hitza frango. Hitza frango ikasiik. Nik emaztia salbu, beste langile ta ibiltzen nuk hekin beti eskuaraz.
- Bai?
- Hua ere entzuten zuten. Ta eztira ariko eskuaraz lehena [...] hola, bena konprenitzen dena e! A ba, ba, ba... eskuaraz da, oro konprenitzen dute. Ta

oai... oai ezkondia da, etxe huntan semia "donc", hak ene segida hartia diena, ta hak emaztia... "d'Ordiarp" du.
- A, Urdiñarbe?
- Urdiñarbe, beti eskuaraz ari dena... Eta oai, eta semia ere eskuaraz ari da [noiznahi] ari da haurrari eta oro eskuaraz ari dira. Eta... eta nik ezpinakon entzuten e eskuara hitz bat oai artio eta oai haurraekin eta oroekin eskuaraz ari da!
- Ta ba, ta bistan dena!
- Segida euskalduna!
- "Voilà"! A ba, ba, ba, ba. A, ezta denetan erten ahal, "ça dépend" nor den eta ezkontzen, eta noekin, eta "c'est... c'est... tout plein de..."...
- Ameriketan ere segida euskalduna.
- Eskualduna, bana "voilà", bana eskuaraz... e... nola erranen dut e... eskualdunak elgarren artian balin badira, bestenez ikasaazteko, ba eiten da, badakit gau eskoletan eta ikasten ahal dela, eta ez dut... ez dut fitsik kontra [...] bana difeentia da. Ezta familian... familian ikasi eskuara hua da, ene... ene gustuko e, gio eta... eta oai egoiten da hua. Eztakit zer, ze... ze...
- [...] zure hizkuntza da.
- Bai.
- Bestela ez da [...]
- Zonbait aldiz aitatxi zaharraekin eta amatxiekin, eta entzun, elgiak eta, gio ere arra-heldu dira, hek ez dira sekula ahazten.
- Hori da.
- E?
- Hori da. Bai, hala da.
- Bai, nunbeit, ene... ene gustuko.
- Bai, hala da... hala da.

3.2. Gero eta erdara gehiago inguruan

- **Hizlaria(k)**: Ardoi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: DOB-001/006
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:11:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Erdarako joera handia dago bere inguruan. Ez daki zergatik gertatzen den hori. Lehen mundu guztiak egiten zuen euskaraz baina orain ez.

Transkripzioa
- Eta orain lehenago baina gutxiago? Ele... elekatzen...
- A ba...
- Ez?
- A ba, ba, ba, ba. Leheno oono, ez dakit zendako... nik hemen berian´e ikusten dut anitz familia, eskuara badakite, bena gehientsiak frantses, erdaralat-eta lerratiak, e!
- Bai?
- Ba, ba, ba, ba. Ni... ni eskuaraz lehen aizuaekin, beraekin, mutiko bat, arraroa [...] donadua dena oono gehio, bena zendako beti frantseseat lerratia? Badaki eskuara ere untsa e! Badaki eskuara ere untsa, eta

berrogoita hamar bat urteko mutikua oai, bena berenaz, aisiago ari erdaraz. Zendako? Aita-amak biak eskualdunak zien. Ama La... Lapurdiko ere, ber herrian eta hantik, Iztuitzeko, aita hor berian sortia, ta gio... gio ezpitakit nik horiek eta behar litake ni beno biziki [...] konprenitzeko zendako aisiago lerratia frantseseat eskuaraat beno. Aita-amak e, aita-amak ere leheno aisio frantsesez izanak direa?
- Bai...
- Etxen... etxen, e... beren artian zirelaik seurra, ba aita beti eskuaraz ari zen, hua ez zen eta harekin balio besteik deuse... Aita ta ama ere!
- Bai...
- Ama ere! Ta ene amain aneiak heenguak zienak eta beti eskuaraz ari zien. Bo nik ez diat eta [...] entzun. Bazakitan... frantsesa bazakitan behar bazen...
- Bai, behar bazen bai.
- Bena... eskolan ikasi, bena ez eta... eskuara zuten hek beren lengoaia.
- Bai, hala da.
- "Ca on" erten dutena erdaraz "sans même se poser de... de questions" ! Eskuaraz ari zitian, "point" !

3.3. Katexima euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Ardoi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: DOB-001/007
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:11:54. **Bukatu**: 00:13:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena**: Katexima beti euskaraz ikasi dute. Erdaldunei bakarrik onartzen zitzaien frantsesez. Goienetxe abizeneko apezaz dihardu.

Transkripzioa
- Ba... Ta zunbat... zunbat gauza... katixima ere...
- Bai?
- "C'est une petite histoire pourtant" bena katixima ere guk eskuaraz ikasia dik.
- A bai?
- A ba, ba, ba, ba, ba.
- Nola?
- [...] E?
- Nola?
- Liburiak eta bazien e, eskuarazko katixima e!
- A bai e?
- A ba, ba, ba, ba, ba. A ba, ba [...] frantsesez e, eskuaraz behar [...] e "l'abbé Goienetxe", heen Domintxinen, eona apez famatu hua aipatzen beitute, eskuara emaiten ta ibiltzen ta [...] ukana, bana katixima eskuaraz e!
- Bai?
- A ba, ba, ba, ba, ba. Bai.
- Eta apezgoa zer zen? Euskalduna ere bai?
- [...] Lar... Larzaaleko zian, Larzaaleko, eskualduna arraza pura, ta hua... hua... hua eskualduna zian. Hua... hua eskualduna zian, berenaz hola, oai

e, nola erranen diat, ez zian eta fitsik... harendako normala zian.
- Bai, bai.
- Katixima eskuaraz ikastia. Ta bon, meza, ordian latinez zian, "donc...donc" ez zian eta oono [...] han, bena katixima guk beti eskuaraz, eta behar [...] arrazoina inportanta ukaiteko, eta ez katixima eskuaraz ikasteko e! Erran nahi diat eta familia nunbaitik jina bazen, eta senar-emaztek ez bazakiten eskuaraik eta, ordian haurrari onartzen zakon katixima frantsesez. "Mais c'était vraiment une exception eh", erten [...]. Egia! zinez, e!

3.4. Hizkuntza praktikatu egin behar da

- **Hizlaria(k)**: Ardoi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: DOB-001/009
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:14:50. **Bukatu**: 00:15:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararekiko sentimendua
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Hizkuntza praktikatu egin behar da, bestela ahaztu egiten da. Noizik behin hitz egitea ez da euskalduna izatea.

Transkripzioa
- Bisten dena! Bistan dena! Emeki-emeki galduko duk bestenez!
- Bai, hori da.
- E!
- Ez bada ikasten...
- E bai, ikasten, ta pratikatzen süstut.
- Bai, eta praktikatzen inportanteagoa dela...
- "Voilà".
- Elekatu... elekatu...
- Elekatu. Ikasaaztia. Nik eta eztiat eta, beste lengoaiak oro ere ber gauza tuk.
- Bai, bai. Bai, bai.
- Ez batee bantatzeko bena alaba badiat eta "professeur d'anglais" dena... Edo errientsa dena, [...] eskola emaiten ari anglesez. Ta... bena mintzatzen duk anglesez gio... Ez baduk baliatzen, hua ere... hua ere ez duk...
- Hori atzentzen da... ahanzten...
- "Voilà". Eta eskuara ber gauza duk. Arrunt ber gauza. Lengoaia duk! Eiten baduk, eskuaraz ari bahiz, normal, normalagoa [...], ta gaiñean noiztenka beizik ez balin bahiz ari, ez duk hua... ez duk hua eskualduna izaitia! E... nola da...?

3.5. Zuberotarra eta manexa

- **Hizlaria(k)**: Ardoi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: DOB-001/020
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:33:50. **Bukatu**: 00:35:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Domintxainen "manexa" (behenafarrera) egiten dute, baina Etxarrin badute zuberotar ukitua, eta Arüen gehiago oraino. Sarrikotapean, berriz, zuberotar garbia. Ithurrotzen Zuberotarra gehiago.

Transkripzioa
- Eta lehenago, nola esplikatu duzu hori, Arüeko eta Domintxaineko euskararen kontua eta? Nik entzun dut, baina honek ez du entzun. Hori beste euskara diferentia dela Arüekoa eta...
- Bai, bai... eta egundano nehok´e ez dik esplikatzen zendako!
- Bai? Eta Domintxainen erran duzu manexa, ez?
- Domintxinen biziki manexa gehio, eta Etxarrin deia, nornahi mintza dezakan, eta xübero eiten die gehio: "ü"... "ü" gehio, eta anixko hitz´e ba, heen, heentik difeentak. Ez biziki... ez biziki, elgar konprenitzen diau, bena baduk difeentzia halee Domintxinetik eta Etxarrirat. Ta Arüe gehio oono.
- Bai, bai. Eta [...] erabat, ez?
- A ba, ba. Sarrikotan e, "souletin" duk.
- Bai, hori da.
- "Enfin", xübeotarra duk.
- Eta zuk?
- E?
- Zu manexa?
- Ni... ni manexa edo... ezpitakit nola...
- Baxenafartarra?
- Baxenafartarra.
- Eta Ithorrotzen, Ithorrotzen ere, Etxarrin bezala, edo Arüen bezala...?
- Bai, Ithorrotzek emaiten dik xübero gehio!
- Bai e?
- Bai. Ithorrotze, ondo-onduan gielaik, bidia arte.
- Bai, bai.
- Ithorrotzek xübero akzantak bai... Domintxinen beno gehio.
- Gu egon ginen Olhaibiko emazteki batekin. Xibero konpleta e!
- A ba, ba, ba!
- "Complet'!
- Sinesten diat!
- Olhaibiko emazteki batekin, Arüekoa zen baina... Arüekoa zen baina Olhaibin bizi.
- A, Olhaibin bizi?
- Xibero, xibero, xibero... xibero!
- Xahar bat?
- Bai, hola... bai.
- Hantxe eta...
- Mehar-meharra!
- Ba, ba... "d'accord"!
- Emazteki oso eztia.
- Ba, eleka aise ari zena?
- Bai, bai, bai... eta xiberotar puru-purua.
- Puro? Ba, ba, ba, ba. Baietz... baietz!

4. Bestelako kontuak

4.1. Domintxaineko eliza, gaztelu izandakoa

- **Hizlaria(k)**: Ardoi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: DOB-001/012
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:20:00. **Bukatu**: 00:22:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Bestelako kontuak » Historia orokorra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena**: Entzuna du gaztelua izana dela Domintxaineko eliza. Frantziako Iraultzara arte jauntxoak menderatzen zuten dena. Ithurrotzen eta Etxarrin ere baziren jauntxoak, Abadiatarrak.

Transkripzioa
- Hor, nik aditu dut, lehenago Domintxainen, eliza zen lekuan gaztelu bat zela, edo jauregi bat zela.
- Jauregia ba.
- Eta gero, horietarik dorre bat dela orain eliza. Nola da hori?
- Ba... hartarik gelditia da ba hasteko. Xuxenik ez dakit, bena xatoa zen hasteko hori. Gaiñeko eta gerla zelaik edo batalla... atakatiak zielaik, oliuain aurditzeko lekiak eta baziela badakik olio berotia, eta aurditzen zuten xatoain gaiñetik...
- A bai e?
- "A ceux qui", bai atakatzen zutener, eta hetaik bazela, bazitian halako zer batzu [...] beheiti igorten zuten "mais bon", ta hala diote, nik hala entzun diat bai, xatotik eina dela Domintxineko eliza hori.
- O?
- Bai, zeen ta "seigneur"ak eta bestiak e Domintxinen eta, leheno alabainan, monarxiain denboan eta dena "seigneur" eta holako bitzen! Espaiñan geoztik e! Bena heen e... heen e beant artio hala [...].
- Bai, Frantses Errebolu zioa artio bai.
- Ba, ba, ba, ba... Frantses Errebolüzione artio. Ta ordian "le duc" hangoa, ta "le seigneur" heengoa, ta ez dakit batee gio ez zutian manatzen eta bazterra oro! Gu bezalakuak lanian ta isilik!
- Bai, hori da!
- E ba, ba, ta alta... hala zen ba!
- Bai... Hor ere bazen beste "seigneur" edo holako zeren bat ez, Etxarrin?
- Etxarrin!
- Gaztelu handi horretan e?
- Eta bestia... eta heen, Ithorrotzen.
- A Ithorrotzen, bai.
- Ithorrotzen e, beste "seigneur" bat. Gio Etxarrikua, eta Ithorrotzekua eta horik anaiak zien e! Familian zien horiek, "des Dabbadie". Etxarri heengoa e, gio hua, bide bazterrian den xato hartan, han beste bat han. Han ez dakit nola zien izena.
- E, Gamuekoa edo...?
- Bai, bai.
- Eta Arberatzen ere bai ez? herri bakoitzean?
- Ba herri bakotxian.
- Bai.
- Arberatzen e angles batzuk erosia die xatoa.
- A bai?
- Bai.

- O!
- Bai, angles batzuk erosia die. Ba [...] sosa ere [...] dena arraberritzen.

5. Politika

5.1. Gustuz egin behar da lan

- **Hizlaria(k)**: Ardoi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: DOB-001/017
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:29:06. **Bukatu**: 00:29:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra aurrea » 1914-1923: Monarkia
- **Laburpena**: Gustuz egin behar da lan, bestela utzi egiten zaio. Bortxaturik hasten direnak laborantzan ez dute segidarik izan ohi.

Transkripzioa
- Nik orai artian ikusi dutanak hola bortxaz, laborantzan plantatiak, ez die bihi batee deuse on ein.
- Ez du funtzionatzen, ez?
- Ez, ez du balio, "non". Behar da gostuz ari izan. Ez gio laborantxan bakarrik e! Beste lan... beste lan guzietan´e!
- Bai, baina... beti gustuko lana, zaila da.
- Ba, ez da maleruski, zaila da arrapatzia egiazko gustukua.
- Hori da, egiazko gustukoa...
- Akort niz... akort niz zuekin.
- Bai...
- Akort e! Bena bon...
- Sosak behar dira eta...
- Ba, ba! Eta ordian ez da hautatzen... Ordian helduen... helduen lan hua hartzen da. Ba, ba...
- Bai, bai, bai.
- Hala da... hala da.

6. Baserria

6.1. Artoaren hobekuntza

- **Hizlaria(k)**: Ardoi, Erramun
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: DOB-001/019
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:30:58. **Bukatu**: 00:33:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena**: 20 bat hektarea arto ereiten dute. Artoaren lanak. Arto arrak eta emeak daude; ernalkuntza nola gertatzen den. Arto transgenikoari bidea mozteko etengabe hobetu beharrean dira hazia. Herrian ez dute artoa bakarrik ekoizten. Behi eta ardiak ere ugari dira.

Transkripzioa

- Arto asko duzue?
- Ba, ba... betiko kanpuak, "enfin" hogoi... hogoi bat hektara eiten dugu.
- Eta gero saldu, saltzeko...?
- Bai, hori ba azitakua beita.
- Azitakoa? Eta nola kaztratzen da artoa?
- Ta eskuz finitzen! Oai maxinak badira.
- A bai?
- Maxinak badira lehen pasakoen emaiteko. Ta gio eskuz.
- A eskuz...
- Finitzia beti eskuz e! Bena maxinek halee launtzen daukute.
- Eta zer da artoa kaztratzea?
- A... "très bonne question"! Eta hori frantsesez e haatik, hori ezta eskuaraz! Bena artoain kaztratzia da... Artuak kukula eiten du...
- Bai.
- Kukula hori gaiñen heldu den lili hua.
- Bai, bai, bai, bai.
- Lau lerrotan, "amak" deitzen dituk horiek. "Amak" zendako? Hek bitute behar izan fekondatuik... arratik. Fite esplikatia da. Lau amaer, behar dugu kukula kendu, hen errautsa, "pollen, le pollen" deitzen dena ez dadin juan ama... bere buriain fekondatzeat. Ta ondoko arrain polena hartu jin behar ama hartalat, bi barietate nahastekatzeko. Ez dakit konprenitzen...
- Bai, bai, bai, bai. Eta hala arto hobea, ez...?
- Ba, amelioratzen da beti... Ari xekatzen ari dira beti hobia... hobiain eiteko! Hobiain eiteko, eta beti... beti bidiain barratzeko delako beste famatu horri, delako Ameiketan ta atxemana beitzuten eta "génétiquement modifié, OGM"...
- A bai...
- E ben beti horri bidiain mozteko, beti beste barietatekin arribatzeko gu ere errendamendu onen ukaiteat.
- Bai, bai, hori komeni da.
- Ba.
- Ze bestela zerrikeria jaten da.
- "Voilà, voilà". Ordian hori normaletik arribatzeko einahala ona... "enfin" errendamenu onain eitat "quoi".
- Bai, bai, bai.
- "Voilà, voilà".
- Eta arto anitz egiten da hemen edo...? Lehen baino gehiago edo...?
- Ez, ez ,ez... ez. Bada [...] terribleko kabale [...] heen. Heen eta bada abere, anitz abere. Herri huntan bakarrik. Eta horiek, ostian mintzatu ukan mutiko horrek, ta horrek ardiak´e. Horrek hiruehun bat ardiak´e. Ardiak dituk. Ez deiztekuak. Horrek e ardiak eta...
- Haragitakoak?
- Haragitakuak.
- A bai e?
- Bai. Ta "voilà". Ta gio hogoi bat hektara, hamabost hektara, e... hor e... etxe, etxen izari eta bakarra. Oai e... nola e... lur, zonbat lur ukan inportaik alabainan. Bana... ba, ba... gehio ez.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Haurtzaroa Domintxinen 1930 hamarkadan (DOB-002/001)

Dominique Etchegaray 1930eko apirilaren lehenean sortua da Domintxine Haixtoian. 6 urtetan eskolan abiatu eta zertifikata 13 urte eta erditan iragan zuen. Gerla garaian, Domintxine eremu librean zegoen. Herrian berean kausi zitaizkeen gendarmeria eta aduana, posta aldiz herri auzoan, Arüen. Donapaleura joaten zirelarik, Behaskanen kontralatuak ziren. Alemanek gutunak xekatzen zituzten.

2. Munduko bigarren gerla garaia Domintxinen (1939-1945) (DOB-002/002)

Haur frango bazen orduan Domintxinen eta ez ziren denak eskolara joaten. Aitamak lagundu behar zituzten, bereziki etxaldeetako lanetan, gerlara joanak zirenen ordez. 18 urteko 10 herritar joan ziren gerla egitera, espainian barna. Hauen artean, Dominique-n anaia zaharrena. Gerla bururatu zelarik, urte batez egon ziren haur guziak etxean.

3. Laborantza Domintxinen (1950 hamarkadan) (DOB-002/003)

60 bat laborari baziren herrian 1950 hamarkadan, hiruetarik biak etxetiarrak. Nagusi gehienak Donapaleuko familia handiak ziren : mediku, farmazia, enpresa buru. Gerla bururatzearekin, segida zuten etxetiarrek etxaldeak erosi dituzte. Zoritxarrez, etxetiar frango donado gelditu da, neskak Parisera joaten baitziren lanarentzat.

4. Etxetiargoaren baldintzak (1950 hamarkadan) (DOB-002/004)

Etxetiarrek kabala bat saltzen zutelarik, salprezioaren erdia eman behar zioten nagusiari. Ogi bihiaren erdia ere nagusiarentzat zen. Aldiz, artoa egiten zutelarik, 6 lerro etxetiarrarentzat gelditzen ziren, lau eman behar zituzten nagusiari. Artoa baliatzen zuten urdeen gizentarazteko eta puailleria (oilo, ahate, antzara...) bazkatzeko.

5. Ithorrotze-Olaibiko jauregia 1950 hamarkadan (DOB-002/005)

Ithorrotze-Olaibiko jauregiak auzoko etxe guziak bereak zituen, kapera ere bai. Etxetiarrek nagusiari, xingarra, nork zein ederrena, eskaintzen zioten urtats kari. d'Abbadie noble familia zen jauregiaren jabea. Aitak seme zaharrena igorri zuen gerla egitera Alemanekin. Ez zuten hau denek begi onez ikusten. Gerla bururatzearekin, semeak Hego Ameriketara ihes egin zuen eta han jauregi batetako alaba batekin esposatu. Europa eraiki ondoan, Frantzia eta Alemanen arteko harremanak hobetzearekin, sorterrira itzuli da.

6. Iloba ondoko egina (DOB-002/006)

Orduko auzapezaren etxean mutil zen Dominique Etchegaray. Auzapezaren emaztearen iloba, Marie Claire, nahi zuten ondoko egin. Dominique honekin esposatzera abiatu zelarik, etxaldearen segida hartzeko paperak eta kontuak

egitea behartu zitzaion. Notarioarekin erabakirik, orduko 20 miliun libera behar izan zituen eman emaztearen bi osaberi.

7. Laborari Domintxinen 1960 hamarkadan (DOB-002/007)

Senar-emazteak laborantxan hasi ziren 1960 urteetan. Behi gorriak (haragikoak) eta artoa ziren etxaldeko bi ekoizpenak. 18 urtez, neguko bazkak erosten zituen artzain bat hartzen zuten, 6-7 hilabeterentzat. Honek erretreta hartu duelarik, Dominique-k behi tropa emendatu du eta hazitako artoa egiten hasi.

8. Hazitako arto lehen eremuak Domintxinen (1970 hamarkadan) (DOB-002/008)

1970 hamarkadan, Donapaleuko kooperatibako Batmalle ingeniadoreak zuen hazitako artoaren egiteko ideia ukan, Jean Errecart deputatu zenaren garaian. Domintxinera hurbildu, lur landak ikusi, laborariak elgarretaratu eta motibatu... horrela abiatu zen hazitako artoaren abentura Amikuzen. Dominique-k dion bezala, biziki urte onak izan dira – dirua egin da artoarekin. Honi esker, etxalde frango salbatu da. Udan, laborariek gazteak hartzen zituzten arto kukulak egiteko. Hauek, hamabost egunez, sakelako diru pixka bat egiteko manera zuten.

9. Hazitako arto eremuen murrizketa (DOB-002/009)

Laborariak hazitako artoa egiten hasi zirelarik, eremuak ez ziren mugatuak. Nahi zutena erein zezaketeen. Baina, urteak jin, urteak joan, arto soberakinak zirelarik, eremu gutiago egiten ahal zen. Lur Berri kooperatibaren biltzar nagusietan hartzen ziren erabakiak eta laborariek horren manuak segitu behar zituzten.

10. Jean Errecart, Amikuzeko kontseilari orokorra (1945tik goiti) (DOB-002/010)

Dominique Etchegaray-ek ongi ezagutu du Jean Errecart. Hauteskunde kanpainetan, laguntzaile izan da. Errecart norbait izan dela kantonamenduarentzat, azpimarratzen du gogotik : honen garaian egin dira Lur Berri kooperatiba, laborantza lizeoa, hiltegiak eta igeri lekua.

11. Goyhenetche apeza Domintxinen (1949-1988) (DOB-002/011)

Apezpikuak Goyhenetche apeza Domintxinera izendatu zuen 1949n, 42 urte zituen. Besta komitearekin egin zuen lehen afari-bilkuran dantzaldien egitea debekatu nahi izan zuen. Hala ere gazteek segitu zuten herria animatzen.

12. Domintxineko eskola (1950ean eraikia) (DOB-002/012)

Goyhenetche apezak, herritarren laguntzarekin montatu zuen eskola Domintxineko plazan. Erakasle onaren fama hedatu zen. Non nahiko familia handiek nekeziak zituzten haurrak eskola hortan ezartzen zituzten udarentzat eta emeki emeki urte guziarentzat. Eskola handitu da, hiru ehun eta hiruetan hogeitahamar haurrez goiti kondatu da eskola hortan.

13. Goyhenetche apeza, beti aitzina (DOB-002/013)

Goyhenetche apeza Domintxineko eskolako zuzendaria zen ; horregatik eskola denboran hor egoitea behartua zen. Behin, gorputz baten altxatzera atera zen herrira. Eskola publikoko errientak salatu zuen eta ikuskaria etorri zen kontrola

baten egitera. Ez zuen horrek Goyhenetche apeza beldurtu eta jo aitzina egin zuen. Eskola handitzen segitu zuen. Haatik, azken eraikina ez zuen ordaindu ahal izan eta bastimendua sesitua izan zen. Herriko etxeak ez zuen onartu honen erostea.

14. Domintxineko eskola integristen esku (DOB-002/014)

Goyhenetche apezaren segida hartu du nonbaitik jin apez integrista talde batek. Honek kudeatzen du eskola, haur gutirekin (berrogeita hamar bat urtero).

15. Goyhenetche apeza oren aldaketaren kontra (DOB-002/015)

Goyhenetche apezak ez zuen onartzen urtero tenorearen aldatzea. Oren zaharrean joiten zuen anjelusa, herriko elizan aldiz oren berrian entzuten zen. Domintxinen bi anjelusa joiten zirela fama hedatua zen...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-29

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com